Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko abenduaren 2a, asteartea — 231 — Martes, a 2 de diciembre de 2025

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA

265/2025 Foru Agindua, azaroaren 27koa, ingurumen esparruan lehentasunezko mezenasgo jarduerak deklaratzeko eskabideen urteko izaera xedatzen duena eta 2025-2029 ekitaldiei dagozkien aurkezteko epeak ezartzen dituena.

Jasangarritasun Departamentuko foru diputatuak, 2025eko azaroaren 27an ondoren argitaratzen den Foru Agindua eman du:

«Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzkoak, 29. artikuluan hainbat zerga onura aurreikusten ditu Pertsona Fisikoen gaineko Zergan, Sozietateen gaineko Zergan eta Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergan mezenasgoko lehentasuneko jardueretarako jarritako zenbatekoentzako. Eta, 29. artikuluko lehenengo atalak dionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak mezenasgoko lehentasuneko jardueren zerrenda bat ahal izango du interes orokorreko xedeen esparruan, bai eta entitate onuradunak zeintzuk izango diren zehaztu eta jarduera horiek bete beharreko baldintzak eta beharkizunak finkatu.

2025-2029 epealdirako, zehaztapen horiek azaroaren 4ko 17/2025 Foru Dekretuan jaso dira. Foru Dekretu horren 3. artikuluak ingurumenaren esparruan lehentasunezkotzat jo beharreko jarduerak jasotzen ditu:

a) Elikagaiak alferrik ez galtzea edo haien xahutzea murriztea, horiekin hondakinen sorrera prebenitzen eta murrizten laguntzen dutenean.

b) Itsas ingurunea zaindu, babestu eta zaintzearekin zerikusia duten jarduerak.

Bestalde, dekretu horren 14.1 artikuluak xedatzen du Foru dekretu honetako 2tik 10era bitarteko artikuluetan aipatutako jarduera edo programetako bat edo batzuk egiten edo garatzen dituzten pertsona edo entitate guztiek jarduera edo programa hori lehentasunezkoen artean sartzeko eskaera bat aurkeztu beharko dute, berariaz hala izenda dadin. Eskaera hori urtebeterako edo hainbat urtetarako izan ahalko da, eta jarduketa esparruaren arabera Gipuzkoako Foru Aldundian eskudun den departamentuari aurkeztu beharko zaio.

Era berean, 14.3 artikuluak xedatzen duenez, kasuan kasuko departamentuko foru diputatuak eskaera urtebeterako edo hainbat urtetarako den ezarriko du foru agindu bidez, eta hura aurkezteko epea ere zehaztuko du. Izaera orokorrez, lehentasunezko jarduera egiten den urtea hasi baino lehen aurkeztu beharko da eskaera.

Azkenik, 2025ean egin beharreko jarduerei dagokienez, xedapen iragankor bat ezartzen da lehen urte honi dagozkion eskaeretarako. Izan ere, foru dekretu hau izapidetzeko dauden epeak kontuan hartuta, eskaera horiek ezingo dira egin araubide berriaren arabera.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE SOSTENIBILIDAD

Orden Foral 265/2025, de 27 de noviembre, por la que se determina el carácter anual de las solicitudes para la declaración de las actividades prioritarias de mecenazgo en el ámbito del medio ambiente, y se establecen los plazos de presentación correspondientes a los ejercicios 2025-2029.

El Diputado Foral del Departamento de Sostenibilidad ha dictado con fecha de 27 de noviembre de 2025 la Orden Foral que a continuación se publica:

«La Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, en su artículo 29, contempla una serie de beneficios fiscales, en el Impuesto de la Renta de las Personas Físicas, en el Impuesto de Sociedades y en el Impuesto sobre la Renta de los No Residentes, para las cantidades destinadas a las denominadas actividades prioritarias de mecenazgo. El apartado 1 de dicho artículo 29 indica que la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá establecer una relación de actividades prioritarias de mecenazgo en el ámbito de los fines de interés general, así como las entidades beneficiarias y los requisitos y condiciones que dichas actividades deben cumplir.

Para el período 2025-2029, dichas determinaciones han sido recogidas en el Decreto Foral 17/2025, de 4 de noviembre, cuyo artículo 3 declara las actividades prioritarias en el ámbito del medio ambiente:

a) Reducir el desperdicio o despilfarro de alimentos, y de esta manera, contribuir a la prevención y reducción de residuos.

b) El cuidado, protección y conservación del entorno marino.

Por su parte, el artículo 14.1 del citado decreto dispone que todas aquellas personas o entidades que realicen o desarrollen alguna o algunas de las actividades o programas incluidos en los artículos 2 a 10 del presente decreto foral, deberán presentar, una solicitud, que podrá tener carácter anual o plurianual, de inclusión de la actividad como prioritaria, a los efectos de su declaración expresa; solicitud que será presentada al departamento competente de la Diputación Foral de Gipuzkoa en razón del ámbito de actuación.

Asimismo, el artículo 14.3 dispone que la diputada o el diputado foral del departamento correspondiente, establecerá mediante orden foral el carácter anual o plurianual de la solicitud, así como el plazo de presentación, que deberá, con carácter general, presentarse antes del inicio del año en el que se realice la actividad prioritaria.

Por último, en relación con las actividades a realizar en el año 2025, se establece una disposición transitoria para las solicitudes referidas a este primer año que, dados los plazos de tramitación del presente decreto foral, no podrán realizarse de acuerdo con el nuevo régimen.

EK\CV GAO-I-2025-08220

Xedapen iragankor bakarra. 2025ean garatutako jarduera edo programei aplikatu beharreko araubide iragankorra.

2025. urtean zehar egin edo gara tzen diren jarduera edo programei dagokienez, kasuan kasuko departamentuko foru diputatuak foru agindu bidez ezarriko du zein epetan aurkeztu beharko den, berariazko izendapena jasotzeari begira, jarduera edo programa lehentasunezkotzat jotze ko eskaera idatzia. Nolanahi ere, izendapen hori 2025. urtean eskatu beharko da.

Horiek horrela, Jasangarritasun departamentuko foru diputatuak honako hau

EBAZTEN DU

Lehenengo. Urteko izaera ezartzea ingurumenaren esparruko lehentasunezko mezenasgo jarduerak deklaratzeko eskaerei, azaroaren 4ko 17/2025 Foru Dekretuarekin lotuta, zeinaren bidez 2025-2029 urteetarako lehentasunezko mezenasgo-jarduerak deklaratzen baitira interes orokorreko helburuen eremuan.

Bigarren. Jarduera lehentasunezkotzat jotzeko eskaera aurkezteko epea ezartzea, azaroaren 4ko 17/2025 Foru Dekretuaren 14.2 artikuluan aipatutako dokumentazioarekin batera, berariaz hala izenda dadin:

2025. urterako: Epe hori Foru Agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2025eko abenduaren 20an amaituko da.

2026. urterako: Epe hori Foru Agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2025eko abenduaren 20an amaituko da.

2027., 2028. eta 2029. urteetarako: Eskaera lehentasunezko jarduera egiten den urtearen aurreko abenduaren 20a baino lehen aurkeztu beharko da.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete, interesdunek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, argitalpenaren biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dago horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatuari, jakinarazi ondorengo biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte.

Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.»

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2025eko azaroaren 27a.—Alberto Arana Rod, idazkari teknikoa. (8220)

Disposición transitoria única. Régimen transitorio aplicable a las actividades o programas desarrollados en el año 2025.

Respecto a las actividades o programas realizados o desarrollados en el año 2025, la diputada o el diputado foral del departamento correspondiente, establecerá mediante orden foral el plazo para presentar la solicitud escrita de inclusión de la actividad como prioritaria, a los efectos de su declaración expresa, que deberá solicitarse, en todo caso, durante el año 2025.

En su virtud, este diputado foral del Departamento de Sostenibilidad,

RESUELVE

Primero. Determinar el carácter anual de las solicitudes para la declaración de las actividades prioritarias de mecenazgo en el ámbito del medio ambiente, en relación con el Decreto Foral 17/2025, de 4 de noviembre, por el que se declaran las actividades prioritarias de mecenazgo para los años 2025-2029 en el ámbito de los fines de interés general.

Segundo. Establecer el plazo para presentar la solicitud de inclusión de la actividad como prioritaria, acompañada de la documentación referida en el artículo 14.2 del Decreto Foral 17/2025, de 4 de noviembre, a los efectos de su declaración expresa:

Para el año 2025: Dicho plazo comenzará el día siguiente a la publicación de la presente Orden Foral en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el día 20 de diciembre de 2025.

Para el año 2026: Dicho plazo comenzará el día siguiente a la publicación del presente decreto foral en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el día 20 de diciembre de 2025.

Para los años 2027, 2028 y 2029: La solicitud deberá presentarse antes del 20 de diciembre anterior al ejercicio de la actividad prioritaria.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá ser interpuesto directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, con carácter previo, podrán ser interpuesto recurso potestativo de reposición ante este Diputado Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta.

Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.»

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 27 de noviembre de 2025.—El secretario técnico, Alberto Arana Rod. (8220)

EK\CV GAO-I-2025-08220